



# FESTA GIROA ZIURTATUTA FINALAREN EGUNEAN

Diana, pilota partidak, poteoa, ongietorria eta herri afaria antolatu dituzte iganderako Leitzan; gauean, berriz, parranda >7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-06-11**

VIURTEA 1.457.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Julen Lezamiz eta Ana Maria Ruiz (Cecilia G. De Guilarteren alaba), liburuaren aurkezpenean. L.TERRADILLOS

## GERRA ZIBILAREN KRONIKAK TOLOSAR BATEN ESKUTIK

**TOLOSA** Cecilia G. De Guilararte tolosarra aitzindaria izan zen gerraren kronikak egiten; Lezamizek eta Tavernillak liburu batean bildu dituzte 2



Ibarrako Belabieta Gimnastika Erritnikako gimnastak. HITZA

## Belabietako gimnastek emaitza bikainak lortu dituzte Euskadikoan

**IBARRA** Egigurenek, Esnaolak eta Ezeizak lehenengo, 3. eta 2. egin zuten, hurrenez hurren 6

**10. urteurrenean  
«gustura»  
Amarozko  
Antzerki  
Astearekin**

**TOLOSA** «Umeentzako saioek izan dute arrakastarik handiena» 3

**Kultur Astean  
«guztietan  
arrakastatsuen  
paella jatea  
izan da»**

**ALBIZTUR** Kultur Batzordea oro har «gustura» dago Kultur Astearekin 4





**IES Hernani BHI**  
A. Iturriaga - K. Labaka

**A. ITURRIAGA** Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271  
**K. LABAKA** Karmelo Labaka 7 - 01200 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550  
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com



**ELEKTRIZITATEA**

Ekipe eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)  
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

**MEKANIKA**

Mekanizazio (Erdi Maila)  
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)  
(Goi Maila)

**AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 2tik 13ra**

Cecilia G. De Guilarte tolosarraren gerrako kronikak bildu eta liburu bat argitaratu dute Julen Lezamiz eta Guillermo Tavernillak; atzo aurkeztu zuten Ana Maria Ruiz alabarekin batera, Tolosako udaletxean.

## Gerrako bizipenak paperean

INIGO TERRADILLOS

**A**itzindaria izan zen Cecilia G. De Guilarte (Tolosa, 1915). Lehenengo emakumezko gerra korrespondentea izan zen Euskal Herrian. 1936 eta 1937 urteetan Gipuzkoa, Bizkaia, Santander eta Asturiasko fronteetan berri eman zuen. Orain, Julen Lezamiz eta Guillermo Tavernillak bere kronikak *Cecilia G. De Guilarte, reporter de la CNT, Sus crónicas de guerra* liburuan bildu dituzte. Hain zuzen ere, atzo arratsaldean aurkeztu zuten liburua Tolosako udaletxean Ana Maria Ruiz — Cecilia G. De Guilarteren alabetako bat eta Julen Lezamiz eta Andoni Iturzaetak.

### Gertakizunen lekuan

Liburuaren egileek diotenez, topikoetatik urruntzen zen gerraren ikuspegia eskaini zuen *CNT Norte* egunkarian eginiko kroniketan. Emakume borrokalaria izan zen, eta horren erakusle da gerrako gertakizunak gertutik bizi izan zituela, milizianoen ondoan,



Ezkerrean liburuaren azala, eta eskuinean, Cecilia G. De Guilarte. HITZA

gero kronikak idazteko. Ezagutu zutenek albistearen atzetik egiten zuela lan diote, «arriskuan egon zitekeela kontuan hartu gabe». Esaterako, Irungo batailan izan zen, Bilboko kaleetan 1937ko urtarrilaren 4ko gertakari izugarrietan eta Cimadevillan Isaac Puente batailioan. Lehenengo pertsonan idazten zuen, zentsurari beldurrik gabe, pasioz, konbentzionalismo-etatik urrun eta gizateritik hurbil. Gero, erbestean Mexikon egon



zen, eta han nobela ere landu zuen. Liburu honek Cecilia nolakoa zen erakusten du bere kroniken bidez.

### «Oso harro nago nire amarekin»

Ana Maria Ruiz Cecilia G. De Guilarteren 3 alabetako bat da. Julen Lezamiz eta Guillermo Tavernillak eginiko lanaren aurretik ez zutela bere amak eginiko lana ezagutzen azaltzen du. «Bagenekien gerraren kronikak idazten zituela,

baina ez zein egunkaritan». Aita komandantea zen, eta bere inguruko liburuak ere argitaratu dituzte, eta hain zuzen ere lan horien bidez jakin zuten Guilarteren lana nolakoa izan zen, eta hortik etorri zen berari buruzko liburu bat egitearena.

*CNT Norte, El Liberal* eta *El Frente* egunkarietarako egiten zuen lan, eta «iparraldeko eremua galdu zen arte jarraitu zuen». Oso gazte zela hasi zen lanean. «Pentsa, 11 urterekin Bartzelonako egunkari baterako ere idatzi zuen, gero, 19 urterekin Madrilerajoa zen; asko borrokatu zuen, emakume bezala bakarrik zegoen gainera». Mexikon ere idazten zuen, gerrari buruzkoak idazteko eskatu baitzioten han, eta hona etortzean jubilatu zen arte jarraitu zuen.

1989 hil zen 73 urte zituela. «Oso harro nago nire amak egin zuenarengatik, asko miresten dut, geroz eta gehiago, baina pena ere ematen dit, izan ere, asko ari dira bere bizitza idazten orain, eta berak ezin du hori guztia ikusi».

## Gaur izango da Uxola Literatur Sarien XXII. Lehiaketaren sari banaketa

**Tolosa** » Lehen eta Bigarren Hezkuntzako idazleek hartzen dute parte; 18:00etan izango da Kultur Etxean.

ERREDAKZIOA

Uxola Literatur Sarien XXII. Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia izango da, gaur, 18:00etan, Antonio Maria Labaien kultur etxeko areto nagusian.

Ekitaldi honetan, irabazle serratut direnen izenak esateaz gain, aurtengo Uxola literatur lehiaketaren liburuaren aurkezpena ere egingo dute. Juan Kruz Igerabide idazlea ariko da poesia errezitatzen, eta Oihane bere alaba harpatzailak hainbat pieza joko ditu. Tarteetan irabazle guztiek batera argazkia ere aterako dute. Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeak antolatutako sarietan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako idazle gazteek hartzen dute parte, eta maila bakoitzeko hiru lan bozkatuena saritzen dira, hizlauan eta poesian.



## Kontsumoa murrizteko bideak

**INGURUMENA** » Aste Berdearen baitan kontsumo txiki-ko bonbilan banaketa egin zuten atzo Berazubi plazan. Herritarrek gerturatu ziren, informazioa jasotzeaz gain, bonbilak hartzera. Aste Berdearen ekitaldiak

jarraitzen dute eskualdean, izan ere, udal langileak gidatze iraukorraren ikastaroa ari dira egiten, eta gaurtik etzira Ernioaldea 21eko Udaletako herritarrei erosteko poltsa berrerabilgarriak banatuko die. I.T.

## Tolosa-Ibarrako alebinak hirugarren eta laugarren, Gipuzko txapelketan

**Tolosa** » Iragan igandean jokatu zuten Kutxa Topaketaren finala; «oso txapelketa ona» egin dute eskualdeko bi taldeek.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Kutxa Topaketaren finala jokatu zen Donostian, eta bertan eskualdeko ordezkari-tza izan zen; izan ere, Tolosa-Ibarratik bi talde alebin sailkatu ziren aurreko fasean eta han izan ziren biak lehian. «Oso txapelketa ona» egin zuten eta bata nahiz bestea fi-

nalerdiaraino iritsi ziren. Finalerdietan galdu egin zuten biek eta elkarren aurka jokatu behar izan zuten txapelketaren hirugarren postua eskuratzeko.

Azkenean, Mikel Muguruza, Unai Mendizabal, Danel Intxaurren, Mikel Arechaga, Igor Mendizabal eta Javier Herrero osatutako taldea hirugarren izan zen, eta Alexander de la Cuesta, Jone Mujika, Oier Otxoa, Asier Arozena eta Aitana Eizagirrek osatutako laugarren. Emaitza bikaina Tolosa-Ibarrako alebinentzat, Gipuzkoako hirugarren eta laugarren postuak eskuratu.

txokoa  
**h**

kontzerturako  
**5 sarrera pare** zozketan  
deitu eta eskuratu

Ostirala  
ekainak 13 • 20:30ean  
Tolosako Leidorren

**Arimaz Kamera Orkestra**

Irungo Sokazko Orkestra Eskolak eskainia



## Umeentzako saioek arrakasta handia izan dute Antzerki Astean

**Kultura** » 10 urte bete ditu Amaroako Antzerki Artisauen ekimenak; «gustura» daude izan duen erantzunarekin.



1728 animalia kontu antzerkia. E.E.

### ESTI EZEIZA

Asteburu honetan esan diote agur Amaroako auzotarrek 10. Antzerki Asteari. Ohikoa baino azkarrago etorri zaigu aurten, eta ohartzera-ko joan da. Gorringo antzerki taldekoek zapaldu zuten lehendabizi eskenatokia, eta Valenti Piñoten emanaldiarekin jaitsi zuten oihala.

Aurtengo edizioa berezi izan dela esan daiteke, 10. urteurrena ospatzen baitu Amaroako Antzerki Artisauak antolatutako ekimenak. Antzerki taldeko antolatzaileen esanetan, «gustura» daude oraingo honetan izan duen erantzunarekin. Izan ere, haurrentzako saioetara jende ugari hurbildu da. Bestalde, bertako antzerki taldeak *Puñetazo en la punta del cuchillo* antzezlanak aurkeztu zuten Leidor antzokian, maiatzaren 30ean. Taldeko kide den May Gorostiagak azaldu bezala, «arrakasta handia izan zuen saioak, eta bertan bildutako dirua Antzerki Astearen 10. urteurrena ospatzeko erabiliko da». Izan ere, orain arte, Amaroako Antzerki Astearen ardatzetako bat izan da, dohainik izatea emanaldi guztiak. Baina oraingoan, data berezia izatean, Leidorreko emanaldia ikusteko, jendeak sarrera ordaindu behar izan zuen. Hala ere, aipatu bezala,

diru hau, jaitaldi bat antolatzeko bideratuko dute. Bestalde, emanaldi hori berriz eskaini nahi dute Amaroako Antzerki Artisauak. Hala ere, oraindik ez dute zehaztu noiz eta non izango den.

Aipatzekoa da ere, emanaldi gehienak gaztekeraz izan direla. Honen aurrean, antolatzaileek diote, hausnarketarako gaib dela hizkuntzarena, «jendeak euskarazko antzezlanak eskatzen baititu, baina gero errealitatea da, jende gehiago joaten dela gaztekerazko emanaldi guztiak». Honez gain, aipatzen zuten, eskenatoki txikietarako antzezlan gehiago daudela gaztekeraz, euskaraz baino, eskaintza urriagoa delarik.

## Itsaso Leunda hirugarren geratu da Ondarruko proban

**Triatloia** » Larunbatean jokatu zen Gerardo Saiz III. memoriala; triatloien zirkuitoko hirugarrena da oraingo hau.

### ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean, hilaren 7an, hamahirugarren Ondarruko triatloia jokatu zen. Hau, Gerardo Saiz, Ondarruko triatloia-aren sustatzaile nagusietako bat izan zena- ren oroimenezko hirugarrena izan zen.

Distantzia olinpikoko (1.500m-40km-10km) bigarren triatloia da. Halaber, Euskal Herriko zirkuito-

ko denboraldiko bigarrena izan da. Koaxi Triatloi Taldeak eta ETFak antolatuta, Arrigorri hondartzan kokaturik zegoen irteera lerroan 300 parte-hartzaile izan ziren bertan. Irabazleak, Ana Casares (Valle Egües Hiruki T.) nafarra 2:17:19, eta Australiar selekzioiko kidea den Jaimie Rhodes 1:59:26ko denborarekin izan ziren irabazleak.

Taldekako sailkapenean, Lekeitioko Garraitz Kirol Taldea emakumezkoetan, eta donostiarra den Krafft-Atletiko San Sebastian gizonetakoetan, izan ziren nagusi. Eskualdeko kirolariei dagokionean, Itsaso Leunda herrialdearra, Garraitz K.Tkoa hirugarren geratu zen.



## Laskoraingoak Euskadiko txapelkun

**ARETO FUTBOLA** » Azken asteburuetan, Euskadiko Jokoetan izan dira Laskorain ikastolako neskek. Denboraldi osoan zehar eskualde mailan sailkatu ondoren, Gipuzkoako Areta Futboleko Txapelketako finala irabazi zuten neskek eta alebin mutilek. Infantil mailako neskek, Jon Telleria entrenatzailearekin aritu dira urte osoan, gogotsu gainera. Maila honetakoek, Gipuzkoako txapelketaren ondoren Euskadikoa jokatzeko aukera izaten dute. Aurten ez dute Arabako areririk izan baina nafarren eta bizkaitarren aurka aritu behar izan dute. Nafarrei 6-2 irabazi ondoren, joan zen larunbatean bizkaitarren aurka jokatu zuten eta 3-1 emaitzarekin amaitu zen partida. Hala, garaile izan dira Euskadiko Txapelketan. HITZA

## Laburrak

### Bihar, Paraguai bertakoek egindako lehen filma

**KULTURA** » Bihar, Zine-forumean Paz Encinaren *La hamaca paraguaya* (Paraguaiako hamaka) izango da ikusgai. Beti bezala, lehendabiziko saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena 21:45ean. Hogeita hamar urteko epean Paraguai bertakoek eginiko lehenengo film luzea da honakoa. Goitik behera paraguaiarra da filma, nazio ahaztu horren muinari eta bertako jendeari buruz egiten duena. Are gehiago, guarnieraz hitz egiten dute filman, hango landaguneetako hizkuntzan.

### Kolektorearen obretaz informatzeko bilera, gaur

**AZPIEGITURAK** » Oria eta Zelai ibaie- tako uraren kalitatea hobetzeko lanetan ari dira. Honenbestez, gutxi barru Rondilla kalean eta Kondeaneko Aldapan hasiko dira obretan. Honetaz informatzeko, Rondilla kalekoentzat gaur 20:00etan izango da bilera Udaltxeko Batzar Aretoran, eta beste- entzat, egun eta toki berean, 19:00etan.

**think gaur**

MUNDU GLOBAL BATEAN ARI GARA PENTSATZEN, NON EUSKADIKO GIZARTE POLITIKAK NAIROBI ERE HARTU BEHARKO DUEN KONTUAN

EGITASMO HANDI BATEAN ARI GARA LANEAN BIHARKO EUSKADI ERAIKITZEKO

EAJ PNV

think EUSKADI 2020 GIZARTE POLITIKAK gaur

www.thinkgaureuskadi2020.com

## Udan begirale izateko deialdia zabaldu dute

**Aisia** » Ikaztegieta, Altzon eta Amezketan udan zehar begirale aritzeko epea zabaldu dute eta izena udaletxean eman behar da.

### ERREDAKZIOA

Ikaztegieta, Amezketan eta Altzon ludoteka zerbitzua eskaintzeko bi udalek eskaera martxan jarri dute. Ikaztegieta Udalak begiraleak kontratatu nahi ditu udako lan honetarako, eta hauek dira bete beharreko baldintzak: euskalduna izatea eta 18 urte beteak izatea. Hobe biko diren ezaugarrien artean daude udalekuetako tituluduna eta ikaztegiarra izatea.

Interesa duen begiraleak, izena Ikaztegieta udaletxean eman beharko du ostirala baino lehen.

### Altzon hilabete batez

Altzon hilaren 23tik uztailearen 24ra arte antolatu nahi dute ludoteka. Horregatik, partaide izan nahi duten umeentzako eta begiraleentzako deia luzatu dute. Izena udaletxean eman behar da astelehena baino lehen.

3 eta 14 urte bitartekoentzat izango da ludoteka. Begirale izateko, interesdunak 18 urte beteta izan beharko ditu eta esperientzia, izatekotan, kontuan hartuko dute, herritarrei lehenetsuna emanez. Begiraleak ludoteka antolatzen gaur zortzi hasiko dira.

Amezketan hezitzaile izateko izena emateko epea bihar itxiko da udaletxean. Bete beharrekoak ere badaude: Amezketan erroldatuta egotea, 1990ean gutxienez jaio izatea, langabetua edo ikaslea izatea. Informazio gehiago, udaletxean.

## Ikastaroetarako epeak zabaldu dituzte Alegian

### ERREDAKZIOA

Alegiako Kultur Etxean udari begira, 8 eta 16 urte bitartekoentzako ikastaroak antolatu dituzte. Aurtengo eskaintzak esgrima, aerobik eta piragua izango dira. Izen-emate epea etzi arte dago zabalik, Kultur Etxean bertan.

Esgrima uztailearen 7tik 11ra bitartean izango da goizez, 10:30etik 12:30era bitartean, eta 12 euro ordaindu beharko da. Aerobik aukera-

ren dutenek hilaren 30etik uztailearen 11ra bitartean praktikatuko dute. Hauek 11:30etik 12:30era izango dute. 12 euro ere ordaindu beharko da honetarako.

Piraguismoa da azken aukera eta beranduago izango da, uztailearen 21etik 26ra, hain zuzen. 10:00etatik 11:30era izango da, eta 11:30etik 13:00etara bigarren talde bat, jende ugari apuntatuz gero. 18 euro kostako da.

## Kultur Astean «paella jatea izan da arrakastatsuen»

**Albiztur** » Kultur Batzordekoak «gustura» agertu dira: «okerrin joan dena arraunlarien hitzaldia» izan da.



150 laguntzako paella frontoian prestatzen. HITZA

### NEREA URBIZU

Albizturko Kultur Astea bukatu egin da eta balantzea egiteko orduan, Kultur Batzordea «gustura» agertu da. Pena bakarra dute: «Arraunlarien hitzaldia oso ondo egon zen, arraunlariak ere gustura geratu ziren, baina jende gutxi azaldu zen. Bistan da otorduek biltzen dutela jende gehien».

Aurtengo apustua paella jatea izan zen eta «arrakastatsua» izan da, 150 lagun bildu baitzituen frontoian, eta «paella goxo-goxoa ateratu zuten. Jendeari ekitaldia bera gustatu zitzaion». Ondoren, Inde Kitzxen taldea aritu zen: «Jendeak berandu xamar hasi zela komentatu zuten, baina musikariak oso ondo aritu ziren».

Urtero bezala, umeen ekitaldiak oso ondo ateratu ziren ere, bai antzerkia («eskolako aretoa txiki gertatzen ari da») eta baita pailazoak ere. Herriko mugak ikusteko ibilaldirako 8 lagun animatu ziren eta ondoren hamaiketakoan 60 bat lagun elkartu ziren plazan.

### Gizon probetako harria

Paella jatearen egunean bi txartel jaso zituen herritar bakoitzak. Batean, herritarrek, plazan dagoen gizon probetako harria non gelditzea nahi ote zuen galdetzen zen: proposamen aipatuena elizaren eta parkearen arteko belarditxoan uztea izan zen. Udalak, proposamen hau ere kontuan hartuko du.

Beste txartelean, harriaren pisua zein ote zen galdetzen zen eta gehien hurbiltzen zirenen artean zozketa bat egingo zuten. Zozketa adinekoen larunbateko txangoan egin zuten. Gehien hurbildu zirenen artean Karnele Aramendi

izan zen sarritua, eta parte-hartzaile guztien artean egindako zozketan, Maria Jesus Arandia izan zen sarritua. Erniopeko ibilaldirako banatu zituzten erliebeko mapa bana jaso zuten sari gisa. Harkaitz horren pisua zein den? 1.713 kilo.

### Esker bereziak

XIV. Kultur Astea izan da aurtengo eta «ondo» ateratu da aurtengo bereziki, «Laskorain ikastolari (paella-ontziak uzteagatik), Mari Karmen Otaegi sukaldariari Inde Kitzxen taldeari esker; herritarren parte-hartzea ere ezinbestekoa izan da».

## S Soka motzean

### «Gure helburua ez da Realerako jokalaria osatzea»

#### PATXI RENOBALES

Alegiako Intxurre KKEko delegatua, argazkizalea...

#### N. URBIZU

##### Zer egingo du Realak?

Sufritu, orain arte bezala [lehengo astean erantzun zuen].

##### Realeko zein jokalaria aukeratuko zenuke?

Denak berdintsu, Castillo bat esateagatik. [Duda egin du].

##### Noizko Intxurreko futbolari bat Realean?

Gure helburua ez da Realerako jokalaria osatzea, kirola egiteko aukera ematea baizik. Hortik aurrera...

##### Futbola telebistan ala zelaian bertan?

Anoetan zuzenean. Telebistan ezin dutikusi, bertso saioak bezala. Irratian nahiago ditut, baina ezta Champions-a ere.

##### Zer izango litzateke Intxurrerik gabeko Alegia?

Nola esan... Gazteak beste leku batera joango lirarteke. Gazte asko Intxurrekin identifikatzen dira eta Alegia Intxurrekin.

##### Zer azpimarratuko zenuke Alegian?

Poteo giroa.

##### Ezagutu behar den leku bat?

Larraitz ikaragarri gustatzen zait. Orain saturatuta dago, baina zoragarria da lekua.

##### Zer eman dizu Alegiak eta zer Ugarterek?

Alegian egin egin naiz, umetan etorri bainintzen. Ugarteri, berri, estima handia diot, han jaio nintzen.

##### Nola konbentzitu baten bat Alegiara joateko?

Herri txikia da, inguruko jende askok etortzeko aukera dauka eta komunikazio aldetik ondo dago: tren, autobia...



N.U.

**berriak 5 urte**

Parte-hartzaileak

Mokaua  
Beobide eta  
Aukeraren dantzaria  
Anan  
Ruper Ordoika  
Aitor Mendiluze  
Xabi Puga  
Asier Otamendi  
Xabier Silveira  
Amets Azallus  
Harkaitz Cano  
Maialen Lujanbio  
Kirmen Uribe  
Kike Amonariz  
Ilaiki Serrano

**berria**  
Luzatu bostekoa

**EKITALDI NAGUSIA**  
Ekainak 21, larunbata, 19:30ean  
Donostiako Kursaleko Auditoriumean

**Zatoz gurekin ospatzera!**

SARRERA DOAN - Sarrerak eskuzatzeko: 943 30 40 30 • [www.berria.info](http://www.berria.info)  
Dentz gorteko da sarrak auzer eskatzea, ekainaren 11 baino lehen

kutxa

# CONSUMER EROSKI

orain euskaraz

Zure ohiko EROSKIIn eskatu, ekainaren 9tik aurrera. Harpideduna bazara, deitu telefono honetara: 902 540 340



## G Gutunak

### Ibarrako Udalarri: Aditzaile onari, hitz gutxi.

Oso gaizki eramaten dut gizakiok elkarren artean gaizki konponetzea, gure sudurraren aurrean dugun hori ez ikusi edo ez ikusi nahi izatea.

Baina badira bizitzan momentu konkretu batzuk jasan ezinakinak, gehien bat jakinda harremanak sendotzeko izan daitezken aukerak, txarrerako erabili direla.

Uste dut inork ez duela merezi inolako irainik, ezta ere baztertua izatea. Bai baztertua, norberaren iritziak entzuten ez diren unetik.

Zuek, Ibarrako udaletxea osatzen duzenok, «agian» oso gaizki sentitu zarete zenbait egoeretan, agian diot, zeren eta horrela izanez gero baten batek gehiago pentsa-

tuko luke, ez litzuke gauak oso ondo pasako hainbeste jenderen gainetik, hainbat erabaki hartzen dituen momentutik.

Agian diot, inork ez baitu inongo momentuan bere erabakia bertan behera utzi, gehiago pentsatzeko baldin bada ere.

Agian diot, herriaren harreman gero eta urrunagoa baita eta zenbait kasutan aurkakoa. Zergatik ote? Horrela hezitu gaituztelako edo gure gainean jartzen direnak, benetan isilik eta bare mantenduz, gauzak norberak nahi dituen bezala egin nahi dituztelako?

Ez naiz politikaz ari, ez horixe, inoiz ez naiz horretan batere jantzia izan, agian indarkeria eta boterea oso argira ateratzen direlako, zenbait kasutan behintzat. Eta

hori ez dut batere gogoko. Elkarbizitzaz ari naiz, zerbait ikasi al duzue horri buruz, udaletxeko kargu hartu aurretik? Bada, hori txiki txikitatik ikasten da eta nik hori, Uzturpe ikastolan eta nire etxean ikasi dut, eta hortaz, oso harro nago.

Mesedez, nik oraindik ez dut etsi. Idatzi honek eta beste hainbatek, badakit norbaiti zer pentsatua emango diola, ez izan beldurrik, ezta lotsarik ere, hori onartzeko. Denon onerako izango da.

Entzun mesedez, herriari! Hori da, 2008-04-06ko pleno egunean nik egin nuen burla bakarra, eta behin eta berriz errepikatuko dut, hori baita, nire ustez, udalaren oinarri-oinarrizko bete beharra.

**Ainara Lopetegi.** Uzturpe Ikastolako ikaslea eta gurasoa.

## Mendekotasunaren inguruko ikastaroak

**Berastegi** » Gaurtik aurrera mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituztenentzat zuzenduko dituzte ikastaroak.

### A. IMAZ

Berastegiko Gaztainondo jubilatuen elkarteak gaurtik aurrera hainbat prestakuntza ikastaro eskainiko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak antolatuta Sendian programaren barne, mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten familiakoei zuzenduta.

Ikastaro horien helburua adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza eskaintzea dela jakinarazi dute

antolatzaileek, «egiten duten lan hori modu egokian egin dezaten».

**Ikastaroak ekainean zehar**  
*Zaintzaile, zaindu zaitez* lelopean, gaur, hilaren 16, 23, 25 eta 26an emango dira ikastaroak 15:00etatik 17:00etara. Programa horretan parte hartu nahi dutenek informazio gehiago jaso eta eskaera orria bete dezakete Udaleko gizarte zerbitzuetan.

Prestakuntza horretan medikuntza, psikologia, lege eta gizarte arloetako gaiak eta laguntza teknikoak buruzkoak landuko dira. Adituek emango dituzte hitzaldiak. Ikastaroak Gizarte Politikako Departamentuak antolatu ditu, udalako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen lankidetzarekin eta Matia Fundazioako Instituto Gerontologiko, Ingemaren lankidetzarekin.



Ibarrako Belabieta Gimnastika Erritmikako gimnastak monitoreekin batera Euskadiko Txapelketan. HITZA

## Puntaren puntan Ibarrako Belabietako gimnastak

### ASIER IMAZ

Ikasturte amaiera biribila izan da Ibarrako Belabieta Gimnastika Erritmika taldearentzat. Kadeteen A mailan Garazi Eguiguren Euskadiko txapelkun geratu zen iragan larunbatean. Izaro Esnaolabe-

rriz hirugarren postuan sailkatu zen. Kadeteen B mailan Onintza Odriozola laugarren geratu zen Gasteizen.

Eskolarteko infantilen mailari dagokionez, maiatzaren 31n jokatu zen Euskadiko Txapelketa Do-

nostian, bertan Miren Ezeiza bigarren postuan geratu zen.

### Ikasturte amaierako jaialdia

Belabieta Gimnastika Erritmikako partaideek jaialdia egingo dute etzi Ibarrako kiroldegian 18:00etan. Ikuskizunera nahi duen guztia joan daiteke.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

### SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 0011/634 9194 82.

## Laburrak

### Gaur HITZA pilota Txapelketako finalerdiak

**ALEGIA** » Gaur arratsaldean V. HITZA Pilota Txapelketako lehen finalerdiak jokatu dute Alegia pilotalekuan. Finalerdiok hau jubenilen arteko binakakoa izango da, 19:00etatik aurrera. Finalerdietara iritsi diren bikoteak Ezkurdi-Zubiria eta Apezetxea-Galarza dira. Datozen finalerdiak etzi Albitzuren eta etzidamu, larunbata, Berastegin izango dira, alebin eta benjamin mailatan, hurrenez hurren. Bi herri hauetan aipaturiko bi mailetak finalista erabaki egingo dira.

### Kirol Elkartearen batzar orokorra etzi 21:00etan

**IBARRA** » Kirol Elkartearen batzar orokorra egingo du etzi, ostirala, elkartearen lokalean 21:00etan. Bertan gai garrantzitsuak eztabaidatuko direla aipatu dute Ibarrako Kirol Elkartearen zuzendaritzatik, ondorioz, bazkide guztiei bertara ager daitezen eskatu diete.

### Etxeko arriskuen inguruko hitzaldia gaur 17:30ean

**GAZTELU** » Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutzako ikasgelak sustatuta eta osasunari buruzko jardunaldien barnean, gaur Gaztelun etxeko arriskuen inguruko hitzaldia egingo da 17:30ean. Hitzaldian, *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* aztertuko dira. Osasunari buruzko jardunaldiek atseden hartuko dute Gaztelun, irailaren 23ra arte. Nahiz eta hitzaldi hauek jubenilak izan, hainbat pertsona guztiak gonbidatuta daudela aipatu dute antolatzaileek.

### Zeberio II.a eta Altuna II.a bihar Galarretan

**ERREMONTA** » Hernaniko Galarretan erremonte jaialdia antolatu dute bihar 16:00etatik aurrera. Ostegunero bezala, lau partidek osatzen dute erremonte festa eta ohiko den bezala, eskualdeko pilotariak bertan egongo dira. Biharkoan Patxi Zeberio eta Garikoitz Altuna ariko dira lehian eta elkarren aurka. Jaialdiko hirugarren partiduan, Etxabe lagun duela, Zeberio II.a amezketarra eta Urrutia gainditzen saiatuko da. Nahiz eta Altuna II.ak Thermotechnic Torneoan sasoko dagoela erakutsi.

### Txosna Batzordearen bilera etzi 20:00etan

**VILLABONA** » Txosna Batzordeak Santio jaietara batzarra antolatu du etzi, ostiralean, 20:00etan udaletxeko balioaitzeko gela, hau da, liburutegiaren gainean. Herriko eragile ezberdinei bertara ager daitezzen eskatu die batzordeko kideek.

### Bidaiazteari buruzko hitzaldia bihar 17:30ean

**BELAUNTZA** » Bidaiaztearen inguruko hitzaldi bat antolatu du Uli Mankomunitateak bihar 15:30ean Belauntzan. Hitzaldia Kutzako ikasgelak sustatu du eta osasunari buruzko jardunaldien barnean kokatua aurkitzen da. Hitzaldiaren gai zehatza, *Bidaiaztea plazer bat* da eta nahiz eta hitzaldi hauek jubenilak izan, hainbat pertsona guztiak gonbidatuta daudela aipatu dute antolatzaileek. Belauntzan osasunaren inguruko hitzaldiek urriaren izango dute jarraipena.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Finalaren egunerako ekitaldi ugari antolatu dituzte

**Pilota** » Diana, pilota partidak, poteoa, ongietorria eta herri afaria antolatu dituzte, eta ondoren gaua luze joanen da herrian, parranda izanen baita.

## NAIARA GARZIA

Buruz buruko finala iristeko egun gutxi gelditzen direnez, aste honetan bilera egin dute igandeko ekitaldiak antolatzeko eta bertan izan ziren bai Bengoetxearen bai Barriolaren koadrilakoak, Jon Arango Udal kirol batzordekoa, Aurrera elkartekoak, pilota eskolakoak eta zenbait dantzari.

## Igandean, ekitaldi ugari

Goizetik hasi eta egun osoarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Goizean 09:00etan diana joko dute herrian barrena txistulariekin eta ondoren nahi duena mezara joanen da. Meza amaitu eta gero plazan 2 pilota partida izanen dira, neskek palaz ariko dira eta mutilek beste partida bat jokatu dute. Pilota partidak amaitutakoan Incansables txarangarekin poteoa egingen dute herrian zehar.

16:00etan Donostiara joateko autobusak hartuko dituzte. Antolatzaileek azaldu dutenez, «oraindik zehazteko dago zenbat autobus joanen diren. Ostegunean zehaztuko dugu zenbat autobus goazen». Pilota partida amaitu ondoren ongietorria egingen zaie 2 pi-

lotariei. Ongietorriari dagokionez oraindik gauza batzuk zehazteko daude, baina gauean pilotariak etortzen direnean herrian ongietorria egingen zaie txarangarekin plazaraino. Plazan Udal ordezkariak eta Aurrera elkartekoak harriera egingen diete, eta dantzariak arku bat egin eta Aurrerakua dantzatu diete.

Handik zuzenean afaltzera joanen dira. «Oraindik ez dago zehaztua afaria plazan edo kiroldegian egingen duten», dio Pakito Sagastibeltza pilota eskolakoak. «Kiroldegian 1.200 lagun sartzen dira, eguraldiaren arabera izanen da, gora begiragaude. Pello Zabalarekin astelehenean egondu nintzen, baina ez zen ausartzen deus esatera, hain nahastua dabil eguraldia, ostegunean deitzeko esan zidan eta zehaztuko zidala garbi zer eguraldi egingen zuen».

Kateringa 850 lagunentzako izanen da eta gero beste batzuk San Juan bezperan bezala jarriko dira, etxetik janaria eraman eta nahi duten txokoan. «1000 lagun-dik gora izanen gara erraz». Afaria Barriolaren eta Bengoetxearen koadrilakoak prestatzen ari dira.



Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriola, irrifartsu, herriko plazan. ARRATE OTERMIN

Gauean, dudarik gabe, parranda izanen da herrian.

Honetaz gain, finalerako kamisetak egin dituzte. «350 eskatu gutituen hasieran, eta gero gehiago,

baina ahal dutena egingen dute, denbora fisikorik ez baitago». Maimurren eta Astizen jendeak kamisetak erosteko zerrendak jarri zituzten, eta espero baino jende

gehiagok kamisetak erosteko ize-na eman zuzenez zerrendak ixtea erabaki zuten. Soberan gelditzen direnak Aurreran salgai jarriko dituzte.

## H Hilberria

### MARIA DOLORES AZKUE IDIAKEZ

Zuk erakutsitako indarra, bizipoza eta alaitasuna izango ditugu bizitzan oinarri. Eskerrik asko izeko, maite zaitugu.



ZARAUTZ  
2008ko ekainaren 11

Mikel, Aloña eta Igor

### MARIA DOLORES AZKUE IDIAKEZ

ANDREA

Atzo hil zen, 67 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Senarra: Alejandro Epelde; seme-alabak: Arantza eta Javier Guerricogoitia, Nerea eta Iñigo Egiguren, Xabier eta Ainhoa Iraola; bilobak: Haritz, Jule, Asier, Beñat eta Mikel, anai-arrebak: Mikel eta Rita Etxeberria, Jose Antonio eta M<sup>o</sup> Nieves Gesalaga, Koldo (†) eta Mari Carmen Garcia, Miertxe eta Jose Antonio Zabaleta; ezkon anai-arrebak: Juan Mari eta Juani Garin, M<sup>o</sup> Magdalena eta Ramon Zabaleta, Luis eta Trini Ciaran (†), Iñaki eta Ana Azkue; ilobak, lehengusu eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde otzitu bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko SEI TERDIETAN, Zarauzko aita FRANTZISKOTARREN elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



ZARAUTZ  
2008ko ekainaren 11

### MARIA DOLORES AZKUE IDIAKEZ

(Nerea Epelde zinegotziaren ama)

Bat egin nahi dugu Nerearen eta familiaren saminarekin



ZARAUTZ  
2008ko ekainaren 11

Zumaiako Udaleko gobernukideak



### MARIA DOLORES AZKUE IDIAKEZ

(Nerea Epelde zinegotziaren ama)

Une mingarri hauetan, zuen ondoan gaituzue  
"Nere amaren epeltasunak,  
beti goxatuko du nire bihotza"  
Muxu haundi bat



ZARAUTZ  
2008ko ekainaren 11

Zumaiako ezker abertzaleko zinegotziak



### MARIA DOLORES AZKUE IDIAKEZ

Nerea eta Pelloia,  
une latz hauetan  
bat egiten dugu zuen minarekin.  
Eutsi!



ZARAUTZ  
2008ko ekainaren 11

Nerearen eta Pelloiaren lagunak



GOIZA	EURIA
ARRATS.	ESTALIA
BEROENA	18°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Tolosa.** Uxola lehiaketako sari banaketa Kultur Etxean 18:00etan.
- **Tolosa.** Tolosa CF futbol taldean jokatu nahi duten neskontzat: kadeteak (16 urte artekoak) eta seniorrak (16 urte gorakoak) hilaren 13an Usabalera azaldu daitezke entrenatzeko arroparekin.
- **Tolosa.** Imanol Aldaregia Santa Mariako parroko ohiarri omenaldia egingo diote ostiralean 50 urte bete dituelako apaiz gisa. 19:00etan meza eta ondoren afora izango da Fronton jatetxean. Izen-ematea, 943 671034an.

### Erakusketa

- **Villabona.** Ramon Garciaeren babserritar jantzien erakusketa Gurean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



## Arabako hiriburua hobeto ezagutzuz

**ALBIZTUR** Arabako hiriburua ezagutzeko aukera izan zuten joan den larubatean Albizturko herritarrek, Aurrera Saiatz Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek antolatuta. 35 lagun inguruk hartu zuten parte txangoan. 08:30a aldera abiatu ziren herriko plazatik autobusez, bidaian gosaltze-

ko geldialdi bat egin ondoren, Gasteizera zuzendu ziren. Han, gidari lanean aritu zen pertsona bat, Alde Zaharra erakutsiz, eta bertako eraikin ospetsuenen historia azalduz. Ondoren, hiriko jatetxe batean bazkaldu zuten eta Estibalizko Amabirjinarren monastegia ikustera joan ziren arratsalderako. Azkenik, autobusa hartu eta berriro etxerantz zuzendu ziren, 20:00ak alderako iritsi zirelarik. HITZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Unax Arozena Letamendia (Orio).**  
Gaur 2 urte. Muxu bat familiaren eta aiton-emonen partetik.



### Urte askoan!

**AMANE AIZPURU ZINKUNEGI (ALEGIA).**  
GAUR 5 URTE. ZURE URTEBETETZEAN ETXEOEN PARTETIK PRINTZESA.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban Auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfn: 943-650337 Fax: 943-652938  
e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**Bipper Berria**



euskarazko  
zure-azoka

berehala  
gatoz